



DONOSTIAN


LGTBI+FOBIAREKIN

LOTUTA IZANDAKO
INTZIDENTZIEI BURUZKO TXOSTENA



2024





Egilea:

Zaira García Dafonte

Sorginlore Gizarte Elkartea

Koordinazioa:

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoa

Diseinua eta maketazioa:

Ytanos Graff

2025 maiatza





AURKIBIDEA

Hitzaurrea	5
Sarrera	6
Orientabide batzuk	8
Emitzak	11
Emitzak konparatuak	24
Ondorioak	26
Eboluzioa 2021-2024	28
Gomendioak	29
Erreferentziak	32
 Eranskinak	
1. Glosarioa	34
2. Intzidentziak jasotzeko txantiloia	39





HITZAURREA

Maiatzak 17, Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna

Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Donostiako LGBTBI+fobiaren gertakariei buruzko txosten berri hau aurkezten dugu. Zaira García Dafontek egindako azterketa zorrotza da, eta benetan eskertzen diot bere konpromisoa eta dedikazioa.

Beste urte batez, datuek errealitate gordin bati egiten diote aurre, eta errealitate hori ezin dugu alde batera utzi: sexu- orientazioagatik edo sexu-identitateagatik soilik arbuioz baztertzen dituzten jarrerak eta portaerak daude oraindik gure gizartean. Nahiz eta batzuek arazo hori gaingaituta dagoela uste, gaur egun ere erasoak — hitzezkoak zein fisikoak —, isekak edo diskriminazioak ematen dira lan-esparruan, hezkuntzan, sareetan eta kalean. Ezin dugu onartu. Ezin dugu beste aldera begiratu.

Lan egin behar dugu batu egingo gaituzten loturak sortzeko. LGBTBI-fobia ez da gabeziatik sortzen. Gorroto-diskurtsoez elikatzen da, eta diskurtso horiek, pixkanaka-pixkanaka, gure gizarteetan sartzen ari dira, adierazpen-askatasunaz, umorez edo balio tradizionalen ustezko defentsaz mozorrotuta. Diskurtso horiek modu desberdinean pentsatzen, sentitzen edo bizi direnekiko bazterkeria, indarkeria eta mespretxua legitimatzen dute. Eta ez da kalterik ez egiten duen zerbait: extremismoak, giza eskubideen aurkako erasoak eta atzerakada demokratikoak haztea laguntzen dute.

Horren aurrean, erakundeok intolerantziaren aurkako harresi sendoa izan behar dugu, eta pertsona guztien aniztasuna, duintasuna eta berdintasuna defendatzeko ahots argia, salbuespenik gabe.

Lan handia dugu aurretik hobetzeko. Lanean jarraitu behar dugu identitate eta orientazio guztiekiko errespetua sustatzeko, haurtzarotik, hezkuntzatik eta arlo publikotik. Baina, era berean, herritarrei dei egin nahi diet, guztion zeregina delako denon artean gizarte hobea eraikitzea. Biktimak aitortzea, defendatzea, laguntzea, erasoak salatzea,... Pertsona guztiak segurtasunez, errespetuz eta aske bizi ahal izatea bermatuz. Ez da aukera bat: betebehar demokratikoa eta giza eskubideen defentsa da.

Iñigo García Villanueva

Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumenako zinegotzia



SARRERA



Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak aginduta egin da dokumentu hau, 2024ko urtarrilak 1etik abenduaren 31ra arte Donostian LGBTBI+fobiaren ondorioz gertatu diren intzidentziak, erasoak, diskriminazioak eta gorroto-delituak biltzeko asmoz. 2023an argitaratutako [Donostian 2021/2022an izandako intzidentzia LGBTBI+fobikoei buruzko txostenaren](#) eta 2024an argitaratutako [Donostian 2023an salatutako intzidentzia LGBTBI+fobikoei buruzko txostenaren](#) jarraipena da. Beraz, aldagai eta adierazle berak jasotzen ditu. Horrela, azterketa konparatu bat egin daiteke, epe laburreko joerak aztertzeko eta epe ertainekoak aurkezteko.

[Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2023eko txosteneko](#) datuek (2024) agerian uzten dute erregistratutako delituak urritu¹ egin direla, 438tik 2022an 281era 2023an. Modu berean, sexu-orientazio eta -identitateagatiko gorroto-delituak 96 izatetik 45 izatera pasa dira, 2022an baino % 53,3 gutxiago izanik, baina oraindik ere bigarren kausa ohikoena izaten jarraitzen dute. Nahiz eta datuek beherantz egin duten, goranzko joera izaten jarraitzen dute COVID 19 aurreko txostenekin alderatuz. Horrez gain, [Espainian 2023ean izandako gorroto-delituen bilakaerari buruzko txostenak](#) (2024) ere erakusten du motibazio hori bigarren kausa dela estatuan, eta % 13,73an handitu dela 2022tik 2023ra.

1. Ardura unitatea eta erregistro-irizpideak aldatu direla adierazten da txostenean, urritasun nabarmen horri lotuta dago.



Gainera, [Neurtu 2021, EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzio eta jarrerak](#) izenburu dun Ikuspegiren (2022) ikerketaren harira, EAEko populazioaren % 50ek komentario LGTBI+fobikoak entzun ditu, % 42,5ek irainak, % 22k LGTBI+ pertsonak baztertzea, % 17,9k mehatxuak eta % 13,5ek eraso fisikoak.

Informazio horrek, eta urtez urte datuak gero eta gehiago ugaritzeak, agerian uzten dute egoera LGTBI+fobikoak behar bezala erregistratu, analizatu eta aztertu behar direla, *ad hoc* erantzunak diseinatzeko. Erantzun horiek sexu- eta genero-disidentziek oraindik ez dituzten eskubideak eta askatasunak bermatzeko izan beharko dira.

Garrantzitsua da txosten honetan jasotako intzidentziak ez ulertzea gertaera isolatu eta puntualak bezala, ezta diskurtso LGTBI+fobikoetatik urrun dauden gertakariak bezala ere. Hori guztia urteetan zehar errepikatzen den egiturazko indarkeria baten parte baita. Indarkeria hori meta-egonkorra da, hau da, indarkeria adierazteko moduak aldatzen diren arren, indarkeria helburu bera dute: zisheterosexista den statu quo-ari eustea. Gainera, azken urteotan, gorroto-diskurtsoak gorroto-delituen aurreko pausua dira eta hauei zilegitasuna ematen dieten tresna eraginkorra.

Bestalde, txosten hau irakurri aurretik, aipatu beharra dago dokumentu honetan ez dela aipatzen gertakariaren biktimak edo egileak ² identifika ditzakeen daturik, eta, beraz, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna errespetatzen dira. Hala ere, azpimarratu behar da errealitatea interseksionala dela, eta, beraz, eraso egiten duten pertsona batzuei zein biktima batzuei hainbat ezaugarri eragiten

dietela, zeharka, eta horiek zapalkuntzaren kausa izan daitezkeela, hala nola: jatorria, kultura, adina, dibertsitate funtzionala, gizarte-bazterketa jasateko arriskua, eta abar.

Beraz, txosten laburra da hau, hirian sexu- eta genero-dibertsitatea garatzea zailtzen duten egoerak kuantifikatu eta irudikatzea xede duena. Deskribatzen diren gertakariak giza eskubideak erabat baliatzeko eta bizikidetzat lortzeko zein lan egitea falta den erakusten dute.

Amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea, seguraski, hemen argitaratuta daudenak baino askoz intzidentzia gehiago izango direla. Dokumentu honetan, gizarte-entitateetan, komunikabideetan eta erakunde publikoetan salatu direnak baino ez dira jasotzen. Beraz, beharrezkoa da infrasalaketaren ³ fenomenoaz azaltzea eta kontuan hartzea. Era berean, azaldu behar da iturri bakoitzeko datu- bilketa desberdin egiten dela, eta, kasu batzuetan, ez dela zehatza.



2. Dokumentuan, "egile" hitza erabiltzen da intzidentzia nork eragin duen adierazteko. Batzuetan, "erasotzaile" hitza ere erabiltzen da, erasoa baita.


3. Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Agentziaren arabera hau % 90era arte heldu daiteke.



ORIENTABIDE BATZUK ⁴

Mendebaldeko gizarteen egungo sexu-genero sistema hegemonikoa dimentsio hauen erlazioan oinarritzen da: sexua, generoa (identitatea eta adierazpena) eta desira. Hona hemen zer jotzen den arauaren barrukotzat eta zer ez:

Sexu-genero sistema (hiru dimentsio: sexoa, generoa, desira)



Sexu-genero sistemaren dimentsioak. 2018, Kualitate Lantaldea eta Aldarte.

4. Kontzeptu gehienak glosarioan zehazten dira (1. eranskina).



Ikus daitekeenez, zis pertsonak, jaiotzean esleitutakoaren arabera genero-identitatea garatzen dutenak eta, gainera, heterosexualak direnak, onarpena eta pribilegioak dituzte gizartean. Hala ere, nabarmendu behar da faktore patriarkalak eragiten duela emakume-gizon rola bereiztea, eta emakumeak gizonen mende jartzen dituela. Era berean, arauz kanpoko aukera guztiek pairatzen dute desberdintasun hori.

Beraz, arauaren barruko aukerak bitarismoa, zisexualitatea eta heterosexualitatea dira, bai eta femeninotzat hartzen dena maskulinoaren aurrean gutxiestea ere. Gizarte-sistema zisheteronormatiboa da, eta araua errepikatzen ez duten pertsonak baztertzeko ditu, erasoak, diskriminazioak eta/edo bazterketak jasateko arriskua baitute. Hala bada, LGBTBI+ sexu- eta genero-disidentziak biltzen dituen kategoria analitiko gisa erabiltzen da. Argi dago sigla bakoitzaren errealitatea askotarikoa dela eta fikzio bat dela, etengabe aldatzen ari dena eta egoera asko biltzen dituen. Horrenbestez, LGBTBI+ kontzeptua baliatuz, LGBTBI+fobia kontzeptua erabil dezakegu, gorroto-delituak eta zisheterodisidentzien aurkako gaitzespen-, diskriminazio- eta bazterketa- gertakariak biltzeko.

Laburbilduz, txosten honen xedea 2024an hirian salatu diren oinarri LGBTBI+fobikoko intzidentzia guztiak dira, hau da, arau zisheterosexistan oinarritutako intzidentzia guztiak.







EMAITZAK

Honako emaitza hauek informazio-iturri hauei egindako kontsultetatik atera dira:

Iturriak

- [Gipuzkoako Trans Asanblada](#)
- [AMPGYL Elkartea](#)
- [Gehitu Elkartea](#) - [Eraberean sarea, arraza-, etnia- edo nazio-jatorriagatiko diskriminazioaren aurkakoa \(Eusko Jaurlaritza\)](#) - [Euskal LGTBIAQ+ Behatokia](#)
- [Magala Familia Homoparentalen Elkartea](#)
- [Loratuz lotu elkartea](#)
- [Naizen Elkartea](#)
- [Sehaska Familia Homoparentalen elkartea](#)
- [Transexualidad Euskadi Elkartea](#)
- [Hiruki Larroxa Kooperatiba](#)
- [Donostiako Asanblada TransBolloMarika](#)
- [Ozen LGTB Liga](#)
- [Donostiako Piratak](#)
- [EHGAM Mugimendua](#)
- [Berdindu Zerbitzua Gipuzkoa](#)
- [Ikerketa E-maila](#)
- [Gizarte Ekintza zuzendaritza, Donostiako Udala](#)
- [Berdintasun Saila, Donostiako Udala](#)
- [KIUB, Kontsumitzailea Informatzeko Udal Bulegoa, Donostiako Udala](#)
- [Udaltzaingoa, Donostiako Udala](#)
- [Ertzaintza](#)
- [SFUS - Gizarte Larrialdien Koordinazioko Zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundia](#)
- [BLZ - Justizia, Biktimari laguntzeko zerbitzua, Donostia](#)
- [Osakidetza, Euskal Osasun Sistema](#)
- [Kontsumobide Donostia, Eusko Jaurlaritza](#)
- [Ararteko, Euskadiko Herriaren Defendatzailea, Eusko Jaurlaritza](#)
- [Berria](#)
- [Diario Vasco](#)
- [Irutxuloko Hitza](#)
- [Noticias Gipuzkoa](#)

Hurrengo tauletan 2024an erregistratutako intzidentziak ⁵ azaltzen dira ⁶. Guztira 24 intzidentzia jaso dira. Salaketak intzidentziaren kausaren arabera antolatu dira, hau da, intzidentzia eragin duen fobiaren arabera ⁷.

5. Intzidentzia kontzeptua erabiltzen da zabalena delako, baina garrantzitsua da gogoratzea egoera batzuk gorroto-delituak direla.

6. Egoerak labur-labur deskribatu dira.

7. Intzidentzia kategorizatu da, eta ez biktima; horrela, egiturazko kausak ikusarazten dira, eta fokua biktimarengandik kentzen. Adibidez, intzidentzia bat izan daiteke homofobikoa eta biktima homosexuala ez izatea, eta abar. Bide beretik, aurreko txostenen ondorioetan azaldu den bezala, eta honako honetan ere bai, intzidentzia batzuk ekintza fobikoa izan beharrean arauen erreproduktzio zisheterosexista dira. Hala ere, fobia gisa aurkezten dira, ektuktura fobikoaren parte direla ulertzen delako.



Intzidentzia LGTBIfobikoak

2024an Donostian

KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIK. GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
24.18	24/11	LGTBI Zerbitzua + Berdindu	Herritarren arreta zerbitzu publikoa (Zuzenean)	Ezezaguna	Transfobia	G	Ez dakigu	Familiak eta adingabekoak ez dute lortzen aldi baterako dokumentazioaren tramitea bideratzea langileen prozesuarekiko ezezagutzagatik eta gainera, okerreko zerbitzu batera bideratu zituzten.
24.19	24/8	LGTBI Zerbitzua + Berdindu	Polizia etxea	Tratu umiliagarria	Transfobia	E	Ez dakigu	Polizia etxean bere emakumezko genero identitatea esplizitatzean, agenteek ukatu eta barre egiten dute.
24.21	24/7	Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Komunikabi-deak	Diskurtso diskriminatzailea	LGTBI+fobia	Ez dator bat	G	Gizon batek Deia eta Noticias de Gipuzkoan argitaratutako kolaboratzaile baten iritzi-artikulu baten ikuspegi LGTBIfobikoaren berri eman du.
24.3	24/7	Udaltzaingoa	Taberna	Hitzezko erasoa (irainak) eta eraso fisikoa	Lesbofobia	E (2)	G	Gizon bati tabernako jabeek arreta deitzen diote terrazako aulkiak mugitzeagatik eta beste leku bateko produktuak kontsumitzen egoteagatik. Gizonak jarraian iraintzen ditu: "Lesbiana putak, tortilera nazkagarriak" eta abar. Gainera, nesketako bat astintzera heltzen da.
24.15	24/8	Berdintasun saila. Donostiako udala	Bide publikoa	Tratu umiliagarria eta diskriminazioa	Lesbofobia	E (2)	E	Emakume bikote bat kalean musukatzen da eta beste emakume batek errieta egiten die.
24.12	24/9	Ertzaintza	Diskoteka	Hitzezko erasoa (irainak), tratu apalesgarria eta diskriminazioa	Homofobia (eta arrazakeria)	G	G	Atezain batek inolako arrazoirik gabe gizon bati sarrera ukatu eta iraindu egiten du: "gay puta" eta "gainera, marokoarra". Umilatu egiten du publikoan.
24.13	24/11	Ertzaintza	Diskoteka	Tratu umiliagarria eta hitzezko erasoa (irainak)	Homofobia (eta arrazakeria)	G eta E	E	Bikote ezkondu homosexual batekin pisua partekatzen duen emakume batek modu ohikoan halako komentarioak egiten dizkie: "Marikoiak", "Hao Hao indioek zuen bezala egiten dute", "Atzeratuak" eta abar.





KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIK. GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
24.17	24/6	LGTBI Zerbitzua + Berdindu y Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Etxebizitza	Derrikortzea / larderia eta diskriminazioa	Homofobia (eta arrazakeria)	G	E	Biktima bere pisukidearengandik hertsatua da bere orientazioa eta jatorriagatik.
24.1	24/1	Udaltzaingoa	Autobus geltokia	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	G	G	Lanean ari dela, gizon batek langile iraindu du: "Marikoia, putakumea".
24.2	24/5	Udaltzaingoa	Taberna	Hitzezko eraso (irainak) eta lapurreta	Homofobia	G	G	Tabernariak bezero batekin eztabaidatu eta bezeroak tabernariari eraso egin dio. Irainen artean, horietako batzuk "Marikoia, marikoi zikina" dira. Biktimak salatzen du eztabaidan ari zirela telefonoa lapurtu ziola.
24.4	24/8	Udaltzaingoa eta Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Bide publikoa	Hitzezko erasoak (irainak), eraso fisikoa eta lapurreta	Homofobia	G (2)	G (2)	Bi mutil gazte autobusaren zain daude eta elkarrekin erdi lo geratzen dira. Esmatzerakoan, bietako bat ohartzen da mugikorra lapurtu dietela. Euren parean beste bi gizon ikusten dituzte eta modu jarraituan iraindu egiten dituzte: "Marikoi zikinak". Bi mutil gaztetako bat erasotzen dute eta erasotzaileek azkar ihes egiten dute. Eraso fisikoa jasan duen pertsona Donostiako Ospitalera eramaten dute.
24.5	24/8	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak) eta derrigortzea / larderia	Homofobia	Ez dakigu	Ez dakigu	Zenbait ibilgailu cruising inguru batera joan ohi dira molestatzera eta komentario homofoboak egitera. 2024 osoan zehar errepikatzen den praktika bat da.
24.6	24/10	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezko eraso (irainak)	Homofobia	G	G	Gazte batek modu jarraituan eta mespretxuz "Marikoi" ohiu egiten dio udaltzaingo bati.



KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIK. GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
24.7	24/10	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezko erasoa (irainak) eta derrigortzeak / larderia	Homofobia	G (kopurua zehazteke)	G (5)	Ibilgailu batek <i>cruising</i> ingurutik zirkulatzen du, bertako bidaiariak, inguruan dagoen jendeari ohitu egin eta iraindu egiten dute.
24.8	24/12	Udaltzaingoa	Diskoteka	Hitzezko erasoa (irainak) eta diskriminazioa	Homofobia	G (2)	G	Diskoteka bateko atezainak bi gizon kanporatzen ditu, honakoa esanez: "Hemen marikoirik ez!"
24.9	24/12	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezko erasoa (irainak)	Homofobia	G	G	Denbora luzez, gazte bat iraindu egiten du gaztearen negozioaren inguruan maiz ibiltzen den pertsona batek. Irainak honakoak dira: "marikona, hilda egon behar zinateke, zakilak gustatzen zaizkizu", eta abar.
24.10	24/8	Ertzaintza	Taberna-diskoteka	Hitzezko erasoa (irainak) eta eraso fisikoa	Homofobia	G	G	Tabernatik irteterakoan atezainak biktima modu iraingarrian tratatzen du, beste atezainari honakoa esanez: "marikoi puta honek ez nau irainduko", ostikoak eta ukabilkadak ematen dizkion bitartean. Gainontzeko bezeroek gelditzen dute erasoa.
24.11	24/8	Ertzaintza y Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Taberna	Tratu umiliagarria, hitzezko erasoa (irainak) eta eraso fisikoa	Homofobia	G	E	Ostalaritzako langilea bere lankide batek iraintzen du. Honako irainak behin eta berriz jasanez: "marikoa zara" gainontzeko langileen aurrean. Masailean ere jotzen du.
24.14	24/12	Irutxuloko Hitza	Bide publikoa	Hitzezko erasoa (irainak)	Homofobia	Ez dator bat	Ez dakigu	Sexu-genero aniztasunaren aldeko grafiti baten gainean idazten du/dute: "Marikoa, stop gay".
24.16	24/6	LGTBI+ Berdindu Zerbitzua	Diskoteka	Eraso fisikoa	Homofobia	G	G (Taldea. Kopurua zehazteke)	Diskoteka bateko atean, gizon talde batek beste gizon bati botila bat apurtzen dio buruan bere orientazioagatik.



KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIK. GENEROA	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
24.20	24/6	Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Komun publikoak	Hitzezko erasoa (irainak) eta diskriminazioa	Homofobia	G	G (2) y E	Martxoak 30eko 4/2015 Lege Organikoaren ezarpena, herritarren babesaren ingurukoa, Mordaza Legea bezala ezaguna, zehazki 37.5 artikuluan dio arau-hauste arina dela: "Askatasun edo ukigabetasun sexualaren aurka doazen ekintzak gauzatzea bultzatzea edo gauzatzea bera, edo erakustaldi lizunak egitea, arau penalen urratzerik ez dakarrenean". Gizonak esaten duenez, komun publikoetan dago, non bi gizonezko udaltzainek, praktika sexualak eskaini ostean, zigorra ezartzen dioten. Gainera, komunen arduraduna zen emakumeak "marikoi guztiak giltzapetu behar dira" bezalako irainak egin zituen.
24.22	24/9	Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Bide publikoa	Hitzezko erasoa eta mehatxua	Homofobia	G	G	Gizon batek irain homofoboak eta mehatxuak jaso ditu antzeko adineko beste gizon batetik.
24.23	24/12	Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Bide publikoa	Hitzezko erasoa (irainak)	Homofobia	G	G	Gizon batek istilu bat du bi udaltzainekin, amaieran bietako batek honakoa ohiukatzen dio: Marikoi, zakila zurrupatzera!"
24.24	24/12	Gehitu / Eraberean / Euskal LGTBIAQ+ Behatokia	Bide publikoa	Hitzezko erasoa (irainak), eraso fisikoa eta derrigortzea / larderia	Homofobia	G (kopurua zehazteke)	G (4)	Ibilgailu bat <i>cruising</i> zona batetik pasatzen da, bertako bidaiaiek bertan dauden gizonezkoiei arrautzak bota eta iraindu egiten dituzte.

Taulan esplizitatutako kasuez gain, arrazoi ezberdinengandik taulan biltzen ez diren beste zenbait kasu jaso dira. Horien artean dago biktima hirikoa izatea baina intzidentzia beste udalerrri batean edota beste lurraldeetan eskaintzen diren zerbitzuetan gertatu izana. Hori da Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Genero Identitatearen Unitatearen kasua. Bestetik, egoeraren baten berri eman dute, non kolektiboko pertsonak mesfidantza sentitu ahal izan dutena, egoera LGTBI+fobikoa bizitzera iritsi gabe, beraz, ez da sartu.

Jarraian, hainbat datu ematen dira, formatu grafikoan: bai aldagai bakarreko informazioa, bai aldagai gurutzatuak ⁸.


8. Soilik nahasmendua sor dezaketen taulak azaltzen dira.






Intzidentziak hilabetearen arabera

1. grafikoa



Lekuaren eta leku motaren arabera intzidentziak


2. grafikoa






Kasuaren arabera intzidentzia totalak

3. grafikoa



Intzidentzia-erasoaren arabera intzidentzien ehunekoak

4. grafikoa






Intzidentziaren egileen generoaren arabera

Pertsona kopuruen arabera neurtua ⁹

5. grafikoa




Erasotzailearen/erasotzaileen generoaren arabera ehunekotan

Kasuen arabera

6. grafikoa

Erasoa egin edo eragin duten 30 pertsonetatik, 24 gizonezkoak dira, 5 emakumezkoak eta kasu batean gizonezkoak baina ez dakigu kopurua (5. grafikoa). Kasuen ehunekoei dagokionez, egoeren % 44an egileak bakarka jarduten duten gizonezkoak dira, eta egoeren % 20an taldean jarduten dute. Bestalde, kasuen % 20an emakumeak dira egileak.



⁹ Egile edo biktimen kopurua ezagutzen ez diren kasuetan, bakarra balitz bezala jasotzen da. Kasuetako batean, gizonezko eta emakumezko bat adierazten diren arren, banatuta jasotzen dira, ez baitute intzidentzia intenzionaliki taldean gauzatzen.






Erasotzailearen/erasotzaileen generoaren eta kausaren arteko harremana

Kasu kopuruaren arabera


7. grafikoa



Erasotzailearen generoa eta intzidentziaren tipologiaren harremana

Kasu kopuruaren arabera

8. grafikoa






Gizonezko erasotzailea eta intzidentziaren tipologia

Kasu kopuruen arabera


9. grafikoa



Emakumezko erasotzailea eta intzidentziaren tipologia

Kasuen arabera


10. grafikoa






Biktimen generoa ehunekotan

11. grafikoa



Biktimaren generoa eta intzidentziaren tipologiaren harremana


12. grafikoa






Iturriaren arabera kasu kopurua ¹⁰

13. grafikoa



Kasuaren arabera informazio iturri bakoitzaren intzidentzia kopurua

14. grafikoa



¹⁰. Egin diren 29 kontsultetatik soilik 6 iturrik dute kasuren bat erregistratua.






EMAITZA KONPARATUAK


Urteen arabera intzidentzia kopuru totalak: 2021, 2022, 2023 eta 2024

15. grafikoa




Hilabetearen arabera intzidentzia kopurua: 2021, 2022, 2023 eta 2024

16. grafikoa



Taldean gauzatutako intzidentzia kopurua 2021ean, 2022an, 2023an eta 2024an


17. grafikoa






Egile(ar)en generoaren arabera intzidentzia-ehunekoa: 2021, 2022, 2023 eta 2024

18. grafikoa



Kasuaren arabera intzidentzien ehunekoa: 2021, 2022, 2023 eta 2024 ¹¹

19. grafikoa



11. Grafikoa argi ulertzeko asmoz, ez dira azaltzen kasu bakar bateko kausak.





ONDORIOAK

1

Intzidentzia gehien izan dituzten hilabeteak ekaina, abuztua eta abendua dira. Hortaz, aurreko txostenean adierazi bezala, esan daiteke nolabaiteko urtarokotasuna dagoela. Aurreko urteetan ez bezala, otsailean ez da inolako intzidentziarik biltzen, nahiz eta aurreko urteetan nabarmentzen zen hilabete bat zen. Aldiz, aurten, abendua intzidentzia kopuru altuagatik nabarmentzen da. Hori horrela, gabonetan eta udan dagoen intzidentzien areagotzea argia da. Hala eta guztiz ere, erasoak ez dira bereziki gaueko aisia edo lokalekin lotzen. Hori bera azaltzen du [Gorrote arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida Eusko Jaurlaritzaren gidak](#). Hala ere, Euskadiko 2023eko gorrote-istiluen txostenean esaten da urtaroa ez dela erreferentziazko aldagaia. Egia bada ere, LGBTI+fobikoak diren delituei soilik arreta jarritz gero, udako denboraldian kasuen areagotze bat ikusten da¹².

Azterlan honetan erabilitako teknikak mugak ditu, hala nola sare sozialetan gertatutako intzidentziak edo salatu ez direnak islatzeko zailtasuna. Beraz, ondorioztatzen da Donostian uda dela intzidentzia LGBTI+fobiko presentzial gehien izaten dituen garaia.

12. 16.irudia (24. orria): neguan % 16'67a, udaberrian % 13'1a, udan % 18'84a, udazkenean % 16a.

2

Eremu publikoetan, zehazki bide publikoan, gertatzen dira intzidentzia gehien, 24 kasuetatik 10etan. Espazio erdipublikoak batuz gero, 22koa da zifra hori (% 91,7). Ondoren eremu pribatuak daude, hau da, etxeak (% 8,3). Espazioen korrelazio hori, eta bide publikoa lekurik arriskutsuena bezala, 2021/2022 txostenean eta 2023koan ere ondorioztatu zen. Baita [Euskadiko gorrote delituen 2023ko intzidentzien txosten](#)ean¹³ ere.

3

Homofobia da, oraindik ere, kausarik zabalduena: 19 kasu daude, hau da, % 79,2. Ondoren, arrakala handiarekin, transfobia eta lesbofobia, 2 kasurekin bakoitza. Antzeko datuak aurkeztu zituen [Ikusguneak 2023ko txostenean](#) (2024): Bertan Gasteizen 17 homofobia kasu jaso zituen. Beraz, esan dezakegu EAEko bi hiriburutako joerak antzekoak direla, nahiz eta txostenek urte ezberdinei erreferentzia egiten dioten.

4

Intzidentzien % 41,9 ahozko erasoak jasotzen dira. Eraso-mota zabalduena da, nahiz eta batzuetan begi-bistakoa den "marikoi" iraina nagusitasun zisheterosexual mekanismo gisa erabiltzen dela, eta ez biktimekiko/biktimekiko elementu iraingarri gisa. Ondoren, ezberdintasun askorekin, eraso fisikoak eta diskriminazioa datoz (% 14 kasu bakoitzean), diskriminazioa (% 11,6) eta tratu iraingarria ere bai (% 11,6). Aurreko urteetan ez bezala, ia ez dago mehatxu-gertaerarik. Beraz, intzidentzia gehienak eraso zuzenak dira¹⁴. Nabarmentzekoa da gertakarien laurdenean eraso fisiko bat gertatzen dela. Datu hori pixka bat urritu da 2023ko txostenarekin alderatuta, bertan heren bat izan baitzen. Hala ere, tipologiaen korrelazioa antzekoa da, eta hitzezko erasoak ohikoenak dira, eta, ondoren, eraso fisikoak.

13. 13.irudia (21. orria).

14. Izan ere, intzidentzia berean eraso mota ezberdinak eman daitezke, horregatik % 100aren gainetik geratzen da.

5

24 egoereta, 30 pertsonak eragiten dute intzidentzia edo erasotzaileak dira; izan ere, banaka nahiz taldeka aritzen dira. Berririo ere, **gertaera edo eraso gehienak gizonak egiten dituztela ondorioztatzen** da, gertakarien % 62,5 baino gehiago izaten baitira. Hala ere, datua urritu egin da, 2023an % 80ra heldu baitzen.

2023ko txostenean emakumezko erasotzaileak motibazio anitzek gidatuak zirela ondorioztatu zen, oraingoan aldiz, 2021/2022ko txosteneko antzeko datuetara bueltatzen gara, emakume erasotzaileen motibazioa homofobian eta lesbofobian baitzegoen batez ere. Oraingoan, aldiz, homofobian eta transfobian egoteaz gain, LGBTI+fobian ere bai. Gizonezko erasotzaileen kasuan, motibazio-arrazoi nagusia homofobia da.

Hitzezko erasoak da gizonak gehien eragiten duten eraso-mota, eta atzetik eta antzeko kopuruan, eraso fisikoak. Nahiz eta aurreko urteko txostenean eraso fisiko eta hitzekoen datuek antzekotasun gehiago zituzten. Emakumeen kasuan, hitzezko erasoak zein tratu umiliagarriak dira gehien azaltzen diren tipologiak.

6

Kasuen %70,8 biktimaren generoa gizona da, %12,5 emakumea. 2024an ez da erregistratu identitate edo adierazpen disidenteak dituzten biktimen kasurik. Biktimak, kasuen gehiengoan, bakarrik edo bikotean daudenean izaten dira erasotutak.

Emakumeak eta gizonak erasotzeko moduari dagokionez, kasu honetan bai azaltzen dira ezberdintasunak: emakumezkoek tratu umiliagarria jasotzen dute kasu askotan eta gizonezkoek, aldiz, hitzezko eraso gehiago.

7

Donostiako Udaltzaingoa da kasu gehien jasotzen dituen iturria. Zenbait salaketa iturri ezberdinetan partekatzen dira, baina orokorrean salaketa jartzen duen pertsonak errekurso bakar batean jartzen du. Bestalde, 2024an, hedabideek intzidentzia LGBTI+fobiko baten berri eman dute hirian.

Deigarria da txosten bakoitzerako intzidentzien berri eman duten iturrien kopurua. 2021/2022koan, 10 baliabidek zuten kasuren bat erregistratuta; 2023an eta 2024an, ordea, 5 eta 6 iturrik bakarrik, hurrenez hurren, zuten zerbait erregistratua. Hala ere, nabarmentzekoa da intzidentzia LGBTI+fobikoen kopuru osoa antzekoa dela lau urteetan.

Ondorioztatzen da mota honetako azterlanak, iturri anitz dituztenak, bai instituzionalak bai sozialak, beharrezkoak direla, diziplina antzeko entitateetan erregistratutako intzidentziak biltzen baitituzte, errealitate osoagoa islatuz. Era berean, sarreraz azaldu den bezala, infradenuntziaren fenomenoak kontuan izan ere, Europar Batasuneko Oinarriko Eskubideen Agentziak adierazi bezala, % 80-90era irits daitekeen. Hori dela eta, 2024an erregistratu diren 24 kasuez gain, seguraski motibazio LGBTI+fobikoek bultzatutako askoz intzidentzia, eraso, diskriminazio eta gorroto-delitu gehiago gauzatu dira Donostian. Izan ere, [Donostiako LGBTI+ errealitateen txostena](#)ri (2023) erreparatuz gero, galdetegia erantzun zuten 254 LGBTI+ pertsonetatik % 76,4ak baieztatu zuen azken 5 urteetan diskriminazioen bat bizi izan duela. Honek esan nahi duena da, 194 LGBTI+ pertsonak hirian nolabaiteko intzidentziaren bat bizi izan dutela, hiruko erregela aplikatuz gero, gutxi gora-behera, batez beste urtean 39 diskriminazio kasu ematen dira. Hori horrela, agerian uzten da, intzidentziak bizitzen dituzten pertsona askok ez dutela inongo erregistrotara jotzen.



EBOLUZIOA 2021-2024

Gertakarien kopurua antzekoa da, baina igoera txiki bat izan du: 19tik 2021ean, 15era 2023an eta 24ra 2024an. Era berean, aipatu den bezala, **eraso kopuruak udan goranzko joerari eusten dio**.

2021etik 2023ra jaitsiera txiki bat ikusi bazen ere taldean gauzatutako intzidentzietan, 2024an lehenengo txosteneko mailara igo da berriro. Generoari dagokionez, **erasoak gizon taldeek gauzatutak** izaten jarraitzen dute, aurreko urteetako antzeko ehunekoetan. Gainera, erasotzaileak talde handietan erasotzen duten intzidentziak berriz azaldu dira, ondorioz, erasotzaileen kopurua hazi egin da.

Era berean, **gertakarien egileak gehien bat gizonak dira oraindik ere**, 2024an kasuen % 62,5 izatera iritsi dira. Hala ere, emakumezko erasotzaile indibidualen intzidentziak areagotu egin dira, %16,7ra heldu arte.

Homofobiak kausa nabarmena izaten jarraitzen du. Transfobia bigarren arrazoi bezala mantentzen da, eta ez da hain nabarmen gutxitu, 4 kasu 2023an eta 2 kasu 2024an. Kasu honetan, lesbofobia ere azaltzen da bi intzidentziarekin. Tipologiari dagokionez, aurretiko txostenetan bezala, hitzezko erasoak, fisikoa eta diskriminazioa dira, orden horretan, ohikoenak gizonen aldetik. Emakumeen kasuan, ahozko erasoak dira ere tipologiari ohikoena, baina horien atzetik diskriminazioak eta tratatu umiliagarriak daude (antzeko datuak 2023, 2022 eta 2021ean).

Beraz, datuak antzekoak dira, aldaketa txiki batzuekin eta azken 4 urteetako joerari eusten diote. Edonola ere, beharrezkoa litzateke denbora-tarte luzeagoz behatzea intzidentziak eta/edo euren erregistroak jakin ahal izateko beste joera bat hartzen ote duten.





GOMENDIOAK

Gomendio hauek Donostiako Udalaren eskumenekoak dira, baina beste erakunde eta entitate askok ere sustatu ditzakete. Iradokizunak hiru ardatzetan banatzen dira: ikertzea, prebenitzea eta erantzutea.

Ikertzea

1

Donostian, urtero edo bi urtean behin, intzidentzia LGTBI+fobiaren txostena egiten jarraitzea.

Horrela, erregistratzeko eta biltzeko sistema hobetu ahal izango da; izan ere, Gasteizko LGTBI+fobiaren aurkako Ikusguneak eta Giza Eskubideen UNESCOko eta Botere Publikoen EHUKo Katedrak adierazten duten bezala, ikerketak errepikatuz metodoa hobetzen da, errealitatea fideltasun handiagoz islatzea lortuz eta, ondorioz, eragiteko gaitasun handiagoa garatuz. Bestalde, txosten hori egiten jarraitzeak hirian LGTBI+fobiari pultsua hartzeko balioko du, epe ertain-luzeko joerak aztertuz eta ezartzen diren neurriek eragiteko duten gaitasuna egiaztatuz.

Neurri osagarri gisa, informazio iturriei informazioa biltzeko sistema bateratu bat sortzea proposatzen da¹⁵, erraza eta operatiboa dena egunerokotasunean. Modu berean, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Negoziatuari hiritarren eskura intzidentziak jasoko dituen postontzi birtual bat jartzea gomendatzen zaio; aldeztu aurretik ezagutzera eman beharko litzakeena. Aurreko txostenetan ere egindako proposamen hau ezinbestekoa ikusten da, hirugarren txosten honetan jaso diren kasu batzuk oraindik ere informazio osatugabearekin jaso baitira. Gero eta zehatzago analizatzea baimenduko duen erregistro kultura bat garatzearen idea azpimarratzen da.

2

Honako gai hauetan sakonduko duten ikerketa espezifikoak sustatzea:

- Transexualitate-egoeran dauden pertsonen gizarte eta lan egoera, bereziki emakume transena*¹⁶.
- Hiritarrek LGTBI+fobiarekiko dituzten pertzepzioen inguruan eta intzidentziak edo eraso LGTBI+fobikoak ikusten dituzten donostiarren erreakzioak.
- Xehetasun handiagoz aztertzea LGTBI+fobia: adin-tarteak, asteko egunak, sare sozialetan eta hiriko komunikabideetan azaltzen diren adierazpen LGTBI+fobikoak...

¹⁵. Laguntza moduan 3. eranskinean eredu bat txertatzen da.

¹⁶. 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.



Prebentzioa eta arreta

Udal-estrategia bat garatzea, LGTBI+ fobiaren prebentzio- eta arreta-prozesuak ezarriko dituen, martxan dauden tresna, baliabide eta zerbitzuekin eraginkortasunez artikulatuz. Horretarako, LGTBI+ politika-plan global bat ¹⁷ sortzea proposatzen da, aurreko alderdi hori barne hartuko duena, ikuspegi intersektionala ¹⁸ izango duena eta **hainbat zuzendaritza** zeharkatuko dituen ¹⁹, hala nola gizarte-ekintza, hirigintza jasangarria, osasuna eta ingurumena, lehendakaritza... Adituekin eta disidentzia sexualen aldeko gizarte-mugimenduetako eragile estrategikoekin batera egitea proposatzen da. Alde horretatik, ezinbestekoa izango da gaiari lotutako eragile anitzeko espazioak bultzatzea. Era berean, plana diseinatzeaz gain, jarraipen-batzorde bat sortzea gomendatzen da. Beraz, LGTBI+ fobiaren aurkako udal-estrategia LGTBI+ politika-planean sartzea proposatzen da.

PREBENTZIOAREN esparruan, honako ekintza espezifiko hauek gomendatzen dira:

- ✓ Udal-administrazioan **azkar eta modu egokian ezartzea** [otsailaren 15eko 4/2024 Legea](#), [pertsonek transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa](#), izaera autonomikoa duena, bai eta [trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrari eta LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legea](#) ere, estatu mailakoa. Alde horretatik, funtsezkoa izango da Udalaren eskumeneko alderdiei kasu egitea.
- ✓ **Mezu instituzionalen bidez, maskulinitatea deseraikitzen saiatzea**, gizonezko erreferente berriak babestuz eta **aniztasuna defendatuz**.
- ✓ **Sexu eta genero aniztasunari buruzko prestakuntza etengabea ematen jarraitzea** Udalari ²⁰ lotutako sail, enpresa publiko eta erakundeetako langile publikoei. Udalak diruz lagundutako zerbitzuak ere sartzea proposatzen da.
- ✓ Jarrera LGTBI+ fobikoak eta matxistak baztertzeko **ahaldunduak diren testuinguruak sortzea** (komunitateak, establezimenduak, jaia, kultura-guneak...).
- ✓ **Sentsibilizazio-kanpainak egitea gune estrategikoetan** (bide publikoa lehenestea iradokitzen da), egiturazko kausetan ²¹ arreta jarri eta, batez ere, **erasotzailearen ohiko profileraz zuzenduta. Erasoan aurrean, erantzukizunaz kontzientziatzeko kanpainak egitea**, eta oinarritzko arreta-jarraibideak ezagutaraztea: defentsa; biktimari laguntzea, salaketa jarri nahi duen ala ez kontuan hartu gabe, eta intzidentziaren berri ematea. Halaber, beharrezkoa litzateke kanpainak egitea **LGTBI+ pertsonen eskubideei eta zerbitzuei buruzko informazioa** emateko; izan ere, Ikuspegiren arabera (2022), adibidez, biztanleriaren % 5ek baino ez du ezagutzen Eraberean sarea.

¹⁷. 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.

¹⁸. LGTBI+--eko pertsonak genero, jatorri, kultura, egoera administratibo eta aniztasun funtzional desberdinetakoak direla nabarmendu behar da. Funtzio aniztasuna eta LGTBI+--en arteko loturari dagokionez, [Nazio Batuetako Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak publikatutako Ohar orokorra Zbki. 5 \(2017\)](#), [modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte-hartzeko eskubideari buruzko testua](#) irakurtzea gomendatzen da (60. paragrafoa).

¹⁹. "Breaking down silos" metodologia.

²⁰. 2022ko ekainaren 23an onetsi zen, Udalbatzaren ohiko bilkuran, eta Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen irizpenaren 1.8 puntuan gomendatzen den bezala.

²¹. Hori adierazten da [orientazio sexual edo genero identitatearen aurkako arrazoiengatik biolentzia eta diskriminazioa babestearen inguruko Aditu Independentetaren Nazio Batuen txostenak](#). Irakurketa gomendatua.





ARRETAREN esparruan, honako ekintza espezifiko hauek gomendatzen dira:

- ✓ Ibilbide judizialik ez duten, baina eragindako kaltea konpontzen eta/edo LGBTBI+ bizitzen kalitatea hobetzen lagun dezaketen intzidentzien gaineko **gizarte-mobilizazioak ahalbidetzea eta laguntzea**.
- ✓ Intzidentziaren salaketa edo erregistroa sustatzea LGBTBI+ erakundeetan edo komunikabideetan.
- ✓ Aurreikusia dagoen bezala, Eusko Jaurlaritzak EAEko udalentsat egindako Gorroto arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTBIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida oinarritzat duen **Intzidente arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTBIfobikoen aurrean erantzuteko protokoloaren eraketa** ziurtatzea. Oinarritzat proposatzen den dokumentuan zehazten den bezala, garrantzitsua da egokitzapen hori prebentzio-politika publikoekin osatzea, hala nola tokiko planarekin. Bestalde, prozesu hori arloko eragile estrategikoekin batera egitea gomendatzen da, bai pribatuekin bai publikoekin batera, adibidez txosten honetarako kontsultatutako eragileekin batera, zerbitzuak ez bikoizteko eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko ²².
- ✓ **Udal-zentroen** funtzionamenduan **LGBTBI+fobiari aurre egiteko arauak eta jarduketa-protokoloak sustatzea**, biktima erdigunean jarrita ²³.
- ✓ **Eraberean-en gida erreferentziatatzat hartzea** [Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza - Oinarritzko gida](#) izenekoa, eta gertutik jarraitzea [Gorroto-istiluen kontra borrokatzeko Espainiako III. Ekintza Plana](#).

Amaitzeko, gomendio horietaz gain, garrantzitsua da kontuan hartzea Donostiako LGBTBI+ taldeak azken urteetan egin dituen eskaerak, hala nola kontsumotik urrun dauden aisialdi-eremuak; etxebizitzarako eskubidea; autokudeaketarako gaitasuna; autozainketa borroka eta eraldaketa sareak sortzeko tokiak eskaintzea, etab. Proposamen horietako batzuk [hiriko \(2023\) LGBTBI+ errealitateen txosteneko](#) gomendioen atalean jaso dira.

Beraz, [LGBTBIQ Pertsonen Berdintasunerako Estrategiarako Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen 2020-2025 irizpenak](#) gomendatzen du, 3.4 puntuan, LGBTBI+ pertsonen berdintasunaren aldeko mugimenduaren lidergoa sustatzea. Halaber, [Nazio Batuen sexu-orientazioko eta genero-identitateko indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesari buruzko Aditu Independentek](#) ²⁴ jardunbide egokitzat jotzen ditu Malta, Kanada, Costa Rica eta Estatu Batuetako kasuak. Kasu horietan, tokiko gizarte zibileko LGBTBI+ pertsonen ordezkariak parte hartu zuten sexu- eta genero-aniztasunari lotutako legedia diseinatzeko eta sortzeko.

²². 2025ean zehar bere lanketa eta argitalpena aurreikusten da. 2024ko azaroaren 21eko Udalbatzaren ohiko bilkuran guztien adostasunarekin onartua.

²³. 2022ko ekainaren 23ko Udalbatzaren ohiko bilkuran onartua.

²⁴. Irakurketa gomendatua.





ERREFERENTZIAK

- **4/2023 Legea, otsailaren 28koa, trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGBTI pertsonen eskubideak bermatzeko**

Estatuko Aldizkari Ofiziala, 51, 2023ko martxoaren 1ekoa.

<https://www.boe.es/eli/es/l/2023/02/28/4>

- **4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa**

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 44, 2024ko otsailaren 29koa.

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2024/02/15/4/dof/eus/html/>

- **Donostiako Udala**

39. akta, Udalbatzaren 2022ko ekainaren 23ko bilkurarena.

[https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/CAB32238C0B403A6C1258861002DA026/\\$file/ac20220623-39.pdf](https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/CAB32238C0B403A6C1258861002DA026/$file/ac20220623-39.pdf)

- **Donostiako Udala**

24. akta, Udalbatzaren 2024ko azaroaren 21eko bilkurarena.

[https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/3DB4AECE45F420DAC1258BD30031BC14/\\$file/ac2024112124zigiludigitala.sin.pdf](https://www.donostia.eus/secretaria/asuntospleno.nsf/vListadold/3DB4AECE45F420DAC1258BD30031BC14/$file/ac2024112124zigiludigitala.sin.pdf)

- **Donostiako Udala (2024)**

Donostian LGBTI+fobiarekin lotuta izandako intzidentziei buruzko txostena 2023.

[https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6F93C12BFDB4C6D4C1258B1F002C390B/\\$file/LGTBIFOBIADESSEus2023.pdf](https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6F93C12BFDB4C6D4C1258B1F002C390B/$file/LGTBIFOBIADESSEus2023.pdf)

- **Donostiako Udala (2023)**

Donostian LGBTI+fobiarekin lotuta izandako intzidentziei buruzko txostena 2021/2022.

[https://www.donostia.eus/info/ciudadano/ddhh_actividades.nsf/voWebContenidosId/9A4CA4943A701A6EC125898E003F963C/\\$file/LGTBI+FOBIA%20DSS_euskera.pdf](https://www.donostia.eus/info/ciudadano/ddhh_actividades.nsf/voWebContenidosId/9A4CA4943A701A6EC125898E003F963C/$file/LGTBI+FOBIA%20DSS_euskera.pdf)

- **Donostiako Udala (2023)**

Donostiako LGBTI+ errealitatei buruzko txostena.

[https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6FD035D282DC39E2C1258AB300408D03/\\$file/Donostiako%20LGTBI%2B%20errealitatei%20buruzko%20txostena%202023.pdf](https://www.donostia.eus/home.nsf/0/6FD035D282DC39E2C1258AB300408D03/$file/Donostiako%20LGTBI%2B%20errealitatei%20buruzko%20txostena%202023.pdf)

- **Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa (2024)**

Espainian gorroto-delituek izan duten bilakaerari buruzko txostena 2023.

https://www.interior.gob.es/opencms/export/sites/default/galleries/galeria-de-prensa/documentos-y-multimedia/balances-e-informes/2023/Informe_evolucion_delitos_odio_Espana_2023.pdf

- **Espainiako Gobernua, Barne Ministerioa (2025)**

III. Gorroto delituen aurka borrokatzeko ekintza-plana (2025-2028).

<https://www.lamoncloa.gob.es/serviciosdeprensa/notasprensa/interior/Documents/2025/240325-III-Plan-Accion-Delitos-Odio.pdf>

- **Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea (2021)**

Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari –

Berdintasunaren Batasunari egindako komunikazioari buruzko irizpena: LGBTIQ pertsonen berdintasunerako Estrategia 2020-2025.

<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A52021AE0006>



• **Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Biltzen (2022)**

Gorrito arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida.

https://www.euskadi.eus/contenidos/proyecto/giza_eskubideak_plana01/eu_def/adjuntos/Guia-de-actualizacion-local-EUSK-WEB.pdf

• **Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Eraberean (2020)**

Tratu-berdintasuna eta diskriminazioarik eza - Oinarrizko gida.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_guiabasica/eu_observat/adjuntos/ERABEREAN_GIDA.pdf

• **Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila eta EHuko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra (2024)**

Txostena: gorrito-istiluak Euskadin 2023.

http://katedraddhh.eus/documentos/pdf/informes/Euskadiko_Gorrito_gertakarien_txostena_2023_WEB.pdf

• **Ikusgune, Gasteizko LGBTI+fobiaren aurkako Behatokia (2024)**

2023. urtean Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko VII Ikusgune txostena.

<https://ikusgune.eus/files/2024/05/informe-2023-euskera.pdf>

• **Ikuspegi (2022)**

Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzeptzioak eta jarrerak.

<https://www.ikuspegi.eus/documentos/neurtu/2021/neurtu2021eus.pdf>

• **Kualitate lantaldea eta Aldarte Elkartea (2018)**

Desirak plazara. Desirak plazara. Gasteizko LGBTI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa. Gasteizko Udala.

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/95/11/79511.pdf>

• **Nazio Batuak - Asanblada Orokorra (2019)**

A/74/181 Sexu-orientazioko edo genero-identitateko diskriminazio eta indarkeriaren aurkako babesak.

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2F74%2F181&Language=E&DeviceType=Desktop>

• **Nazio Batuak - Giza Eskubideen Kontseilua (2018)**

A/HRC/38/43 Sexu-orientazioko edo genero-identitateko indarkeriaren eta diskriminazioaren aurkako babesari buruzko Nazio Batuen Aditu Independentearen txostena.

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2FHRC%2F38%2F43&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False>

• **Nazio Batuak - Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordea (2017)**

Ohar orokorra Zbki. 5 (2017), modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte-hartzeko eskubideari buruzkoa.

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=CRPD%2FC%2FGC%2F5&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False>





ERANSKINA

1. GLOSARIOA

LGTBI+ari lotutako kontzeptuak

Bitarra (sistema)

Giza generoak bi modutan (maskulinoa eta femeninoa) soilik existitzen direla eta horiek jaiotzean esleitzen direlako ideia sustatzen duen sistema. Gizarte batek pertsonak gizon eta emakumeetan oinarritutako rol, identitate eta atribuetan hierarkikoki nola banatzen dituen deskribatzeko ere erabiltzen da kontzeptua.

Bollera

Lesbiana esateko ere erabiltzen da termino hori, baina, hark ez bezala, konnotazio politikoa egozten zaio. Era berean, emakume-identitatetik aldentzeko identitate-kontzeptu gisa erabiltzen da.

Zisexuala / Zisgeneroa

Jaiotzean egungo kanon sozialen arabera esleitutako generoarekin identifikatzen den pertsona, hau da, bulbarekin jaio eta emakume gisa identifikatzen dena eta zakilarekin jaio eta gizon gisa identifikatzen dena.

Zisheteronormatibitatea

Pertsona guztiak zis eta heterosexuak direlako espektatiba, ustea edo estereotipoa, edo normala edo onargarria izaera hori delakoa.

Disidentzia (identitatea edo adierazpena)

Alderdiaren, erlijioaren, kolektibo ideologikoaren, gizartearen eta abarren oinarri diren doktrinei, sinesmenei, sistemari eta abarri buruzko desadostasuna. Dokumentu honetan, heteroarauaren kontrako disidentzia gisa erabiltzen da.

Genero-adierazpena

Pertsona bat, testuinguru sozial eta une historiko jakin batean genero bakoitzari dagozkion patroien arabera, maskulinoztat edo femeninoztat identifikatzeko bidea ematen duten ezaugarri kulturalen adierazpena.

Heterosexuala

Gizonekiko desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen emakumea edo emakumeekiko desira sexual edota erromantikoa sentitzen duen gizona.

Genero-identitatea

Pertsona bat berezkozat sentitzen, aitortzen edota izendatzen duen generoarekin identifikatzea. Sexu-diferentziaren sistema bitarretik aldentzen bagara, genero-identitate desberdinak aurki ditzakegu, gizon-emakume izatera mugatzen ez direnak.





LGTBI+

Lesbiana, gay, trans*, bisexual eta intersexual hitzen sigla. + sinboloa sistema bitar zisheteropatriarkalaren arau hegemonikoak azpiratzen dituzten gainerako genero-identitate, adierazpen, orientazio edota gorputz guztiak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da.

• Lesbiana

Beste emakume batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen emakumea.

• Gaya

Beste gizon batzuekiko desira sexual edo erromantikoa sentitzen duen gizona.

• Trans*a

Jaiotzean esleitutako sexuarekin tradizionalki lotutako arau eta espektatiba sozialekin bat ez datorren identitatea edo genero- adierazpena duen pertsona.
* sinboloa terminoak biltzen dituen errealitate ugariak ikusarazteko estrategia gisa erabiltzen da, hau da, termino biltzaile gisa erabiltzen da.

• Bisexuala

Gizonekiko eta emakumeekiko desira sexual edo desira erromantikoa sentitzen duen pertsona (zis ala trans* diren alde batera utzita).

• Intersexuala

Zientifikoki maskulinitzat eta femeninitzat jotzen denaren ezaugarri biologiko sexual primario edota sekundario konbinatuekin jaiotzen den pertsona. Hau da, «ezaugarri maskulino» edota «ezaugarri femeninoen» arau soziala betetzen ez duten gorputzarekin jaio diren pertsonak. Lau alderdi elkartzen dira: ezaugarri kromosomikoak, hormonalak eta barruko eta kanpoko genitalak.

• Queer-a

Giza aniztasuna zentzu zabalean sustatzea, identitate finko eta estatikoetatik ihes egitea eta aldakortasunaren eta subertsioaren alde egitea xede duen gizarte-korrontea da. Batez ere AEBn hartu zuen indarra, 80ko eta 90eko hamarkadetatik aurrera.

• Ez-bitarra

Binarismotik kanpo dagoen genero-identitatea beren gain hartzen duten pertsonen aplikatzen zaien izendapena.





LGTBI+fobia

LGTBI+ kolektiboko pertsonetikiko ekintza, jarrera, pentsamendu eta sentimendu negatiboak, diskriminatzaileak edota bortitzak. Zuzeneko edo zeharkako ekintzak izan daitezke. Honako kasu espezifiko hauek daude:

• Lesbofobia

Lesbianismoarekiko edota lesbianekiko fobia.

• Bollofobia

Bollerismoarekiko edota bollerekiko fobia.

• Homofobia

Homosexualitatearekiko edota pertsona homosexualekiko fobia.

• Transfobia

Trans* egoera edota pertsonetikiko fobia.

• Bifobia

Bisexualitatearekiko edota pertsona bisexualekiko fobia.

• Interfobia

Egoera edota pertsona intersexualekiko fobia.

• Enebefobia

Zitazio, adierazpen edota identitate ez- bitarrarekiko fobia.

• Luma fobia

Luma duten pertsona edota adierazpenetikiko fobia.

Sexu-orientazioa

Beste pertsona batzuekin harreman afektibo- sexuala sortzeko desira sexual edota erromantikoa.

Patriarkatua

Menderatze-sistema soziala, emakumeen eta femeninotzat hartzen denaren mendekotasuna eta ikusezintasuna erreproduzitzeko ezarria. Matxismoan oinarritutako egiturazko desberdintasun-egoera bat sortzen du.

• Zisheteropatriarkatua

Pertsona zisexualen, zisgeneroen edota heterosexualeen nagusitasuna barne hartzen duen kontzeptua.

Serofobia

Giza immunoeskasiaren birusa (GIB) duten pertsonenganako ekintza, jarrera, pentsamendu eta sentimendu negatiboak, diskriminatzaileak edota bortitzak. Zuzeneko edo zeharkako ekintzak izan daitezke.





Intzidentzia-erasoekin lotutako kontzeptuak

Eraso fisikoa / Lesioa

Pertsona bati gorputzean egindako eraso guztiak dira, hala nola kolpeak ematea, objektuak jaurtitzea, giltzapetzea, astinduak ematea eta marruskatzea, kalte fisikoak eragin ditzaketen beste jokabide batzuen artean. Hau da, beste pertsona baten gorputz-osotasunari edo osasun fisiko edo mentalari kalte egitea.

Hitzeko eraso / Iraina

Indarkeria mota bat da, mezu edo diskurtso mingarri batekin beste pertsona bati min egitea xede duena. Hau da, kalte egiten dio beste pertsona baten duintasunari, haren ospea gutxitu edo haren buruestimuauren aurka egiten baitu.

Mehatxua

Delitu bat da, zeinaren bidez norbaiti iragartzen zaion hari edo haren ingurune hurbileneko beste pertsona batzuei zuzenean kalte egin edo arriskua eragin nahi zaiela.

Kalumnia

Delitu bat da, zeinaren bidez norbaiti delitu-egitate bat faltsuki egozten zaion, hau da, pertsona bat bidegabeki salatzen da, delitu bat egiteagatik.

Derrigortzeak / Larderia

Delitu bat da, zeinaren bidez indarkeria erabiltzen den norbaiti lege debekatuta ez dagoen zerbait egitea eragozteko edo nahi ez duen zerbait, bidezkoa edo bidegabea, egitera behartzeko.

Kalte materialen delitua

Jabetza publiko edo pribatuko ondasun material edo immaterial bat suntsitzea edo hondatzea.

Gorrito-delitua

Edozein arau-hauste penal, pertsonen edo jabetzen aurkakoa barne, zeinean biktima, lokala edo arau-haustearen helburua aukeratzen den hark talde jakin batekin duen benetako edo hautemandako konexio, sinpatia eta filiazioagatik, talde hari laguntzeagatik edo hango kide izateagatik, hala nola benetako edo hautemandako sexu-orientazio, genero-identitate edo genero-adierazpenagatik.

Ezjakintasuna

Gauza bati buruzko informaziorik edo haren izaera, ezaugarriak eta harremanak ulertzeko informaziorik eza.

Diskriminazioa

Ezaugarri fisikoetan, jatorri nazional edo sozialean, kolorean, sexua-generoan, hizkuntzan, erlijioan, iritzi politikoan, posizio ekonomikoan edo beste edozein gizarte-egoeratan oinarritutako bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehentasuna, pertsona guztien giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak berdintasun-baldintzetan aitortzea, gozatzea edo baliatzea deuseztatzea edo gutxitza xede duena.



**Gorroto-diskurtsoa**

Komunikazio-ekintza bat da, historikoki arraza, etnia, erlijio, sexu-orientazio edo sexu-identitate, desgaitasun eta abarreatatik diskriminatua edo jazarria izan den pertsona-talde baten inguruan iritzi dogmatiko eta suntsitzaile bat sustatzea eta elikatzea helburu duena.

Gorroto-intzidentzia

Biktimak edo beste edozein pertsonak arrazistatzat, xenofobotzat, LGBTBI+fobikotzat edo bestelako intolerantziatzat hartzen duen aurreiritzizko ekintza, nahiz eta delitua ez izan.

Lapurreta

Indarra edo larderia erabiliz inoren ondasunez edo eskubideez jabetzeko delitua.

Tratu apalesgarria

Biktimei beldur-, larritasun- eta gutxiagotasun-sentimendua eragin diezaiekeen tratua, haiek umiliatu, doilortu eta, hala badagokio, haien erresistentzia fisiko edo morala urra dezaketenak.



ERANSKINA

2. INTZIDENTZIAK JASOTZEKO TXANTILOIA

INTZIDENTZIA LGTBI+FOBIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEA			
Intzidentzia-kodea:	Data:	Helbidea:	
Deskribapena:			
DATU-BILKETA			
Intzidentzia mota: ☐ Eraso fisikoa Lesioak ☐ Mehatxuak ☐ Derrigortzeak Larderia ☐ Gorroto-diskurtsoa ☐ Tratu umiliagarria ☐ Kalteak ☐ Hitzeko erasoak Irainak ☐ Kalumniak ☐ Lapurreta ☐ Kalte materialak ☐ Diskriminazioa ☐ Ezjakintasuna	Kausa: ☐ Homofobia ☐ Lesbofobia ☐ Bifobia ☐ Transfobia ☐ Interfobia ☐ Enebefobia ☐ ...	Leku mota: ☐ Bide publikoa ☐ Lorategia, parkea... ☐ Garraiobidea: trena, autobusa... ☐ Bizilekua ☐ Gaueko aisialdia ☐ Beste batzuk	Honela erregistratua: ☐ Aurrez aurre ☐ E-maila ☐ Tel. ☐ Sare sozialak ☐ ...
Biktimaren profila: • Generoa (autodeterminatua): • Adina: ☐ Adingabeak ☐ 18-25 ☐ 26-40 ☐ 41-50 ☐ 51-65 ☐ 65 gorakoa • Jatorri / Pertenentzia kulturala: • Dibertsitate funtzionala: BAI / EZ • Gizarte-bazterketa jasateko arriskua: BAI / EZ		Erasotzailearen profila: • Generoa (autodeterminatua): • Adina: ☐ Adingabeak ☐ 18-25 ☐ 26-40 ☐ 41-50 ☐ 51-65 ☐ 65 gorakoa • Jatorri / Pertenentzia kulturala: • Dibertsitate funtzionala: BAI / EZ • Gizarte-bazterketa jasateko arriskua: BAI / EZ	



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

